



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko abuztuaren 18a

107. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuaren 2016ko Kontuei buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehia-keta bidez betetzeko (11. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**Nafarroako Parlamentuaren 2016ko Kontuei buruzko aholku-txostena,
Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2016ko Kontuei buruzko aholku-txostena egin du, Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren 24.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Horrenbestez, honako hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Nafarroako Parlamentuaren 2016ko
Kontuei buruzko aholku-txostena,
Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Parlamentuaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuari buruzko iritzia (4. or.).
 - II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (5. or.).
 - II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (5. or.).

Eranskina. Nafarroako Parlamentuaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuen laburpena (6. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuak herria ordezkatzeko du eta bere esku du legeitzako ahalmena. 50 parlamentarik osatzen dute.

Parlamentuak Osoko Bilkuraren eta batzordeen (arrunt edo berezien) bitartez funtzionatzen du. Gobernu-organoak Lehendakaria, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2017ko martxoaren 27an hartutako Erabakia betez eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik, Parlamentuaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko aurreproiektuaren gaineko aholkularitza-txosten hau egin dugu.

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuak aztertu ditu. Funtsean, honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoren kontua, ondare garbiaren aldatetaren egoera-orria, eskudiruaren fluxuaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion kudeaketaren oroitidazkia.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Parlamentuak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Parlamentuari 2016an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamendua, Mahaiak 2012ko azaroaren 2an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 22an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoari buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- Urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legea, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Parlamentarien ordainsariei buruzko araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak 2007ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia, eta haren 2011ko eta 2014ko aldaketak.
- Parlamentuko lehendakariaren estatutua, Mahaiak 1990eko apirilaren 2an onetsia.
- Mahaiaren Erabakia, Parlamentuko lehendakariaren ordainsariei buruzkoa, 2016ko urtarrilaren 29koa.
- Mahaiaren 1989ko maiatzaren 15eko Erabakia, talde parlamentarioentzako diru kopuruei buruzko arauak onesten dituenak.
- Mahaiaren 2016ko urtarrilaren 29ko Erabakia, talde parlamentarioentzako 2016ko diru kopuruak onesten dituenak.

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako urteko kontuen atal bat dira.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurreproiektua 2017ko martxoaren 16an egin zuen Nafarroako Parlamentuko kontu-hartzaileak, eta 2017ko apirilaren 3an eskuratu zitzaizun.

Honela laburbiltzen dugu Parlamentuaren 2016ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioari buruzko informazio garrantzitsua:

- Urte horretan, 11,07 milioiko aurrekontu-gastua egin du eta 13,01 milioiko diru-sarrerak izan ditu.
- Parlamentuak 2016an gastatutako 100 eurotik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantza iturria	Kopurua
Langileak	59	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	99
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	13	Bestelako diru-sarrerak	1
Transferentzien bidezko gastuak	27		
Inbertsio errealak	1		
	100 €		100 €

- 2016ko abenduaren 31n, Parlamentuan guztira 73 pertsonak egiten zuten lan: 44 funtzionario, administrazio-kontratua zuten 13 pertsona eta behin-behineko kontratua zuten 16 pertsona.
- Parlamentuak, arau indardunari jarraituz, 1,92 milioi euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen ditu, Parlamentuaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuari dagokionez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2017ko maiatzean egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzara ere izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. PARLAMENTUAREN 2016ko EKITALDIKO URTEKO KONTUEN AURREPROIEKTUARI BURUZKO IRITZIA

Nafarroako Parlamentuaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektua aztertu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA

Parlamentuko kontu-hartzaileak urteko kontuen aurreproiektua eginen du eta legelari nagusiari aurkeztuko dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onespena eman diezaion. Urteko kontuek irudi zehatza azaldu beharko dute Parlamentuaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuen aurreproiektuari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoen funtsezko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arazoizko segurtasun bat lortzea, haietan akats materialik ez egoteaz; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Azterketa honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak aztertutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuen balorazioa, hala kontu orokorren akats materialena, akats material hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa izan, nola legezkotasunaren ez-betetze aipagarriena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsezko.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, urteko kontuen aurreproiektuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du, Nafarroako Parlamentuaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2016ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Parlamentuaren 2016ko ekitaldiari buruzko urteko kontuen aurreproiektuan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean 2017ko ekainaren 14an
Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2016ko EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA**1. 2016ko AURREKONTUAREN BETETZEA****GASTUEN EGOERA-ORRIA**

Kontzeptua	Hasierako kredituak	Aldatu-tako kredituak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetzea (%)	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa
1. Langileak	6.883.723	26.000	6.909.723	6.516.213	% 94	6.516.213	100
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	2.279.946	44.215	2.324.161	1.384.674	% 60	1.298.169	94
4. Transferentzia arruntak	3.094.876	0	3.094.876	2.987.778	% 97	2.986.622	100
6. Inbertsioak	422.210	42.479	464.689	144.040	% 31	140.499	98
8. Finantza-aktiboak	57.795	0	57.795	41.750	% 72	41.750	100
9. Finantza-pasiboak	164.000	-26.000	138.000	0	% 0	0	
Gastuak, guztira	12.902.550	86.695	12.989.245	11.074.454	% 85	10.983.253	% 99

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	Hasierako aurreikus-pena	Aldaketak	Behin betiko aurreikus-pena	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehunekoa	Diru-bilketa garbia	Kobrانتzen ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860	0	2.860	68.388	% 2.391	68.388	100
4. Transferentzia arruntak	12.240.685	0	12.240.685	12.240.685	% 100	12.240.685	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	15.000	0	15.000	57.816	% 385	57.816	100
7. Kapital-transferentziak	613.400	0	613.400	613.400	% 100	613.400	100
8. Finantza-aktiboak	30.010	86.695	116.705	37.323	% 32	37.323	100
9. Finantza-pasiboak	595	0	595	0	% 0	0	
Diru-sarrerak, guztira	12.902.550	86.695	12.989.245	13.017.611	% 100	13.017.611	% 100

2. 2016ko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptuak	2016			2015		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aurrekontuaren emaitza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aurrekontuaren emaitza
a. Eragiketa arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	12.366.889	10.888.665	1.478.224	12.138.534	10.609.032	1.529.503
b. Kapitaleko eragiketa (6. eta 7. kapituluak)	613.400	144.040	469.360	656.133	335.497	320.636
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	12.980.289	11.032.704	1.947.584	12.794.667	10.944.529	1.850.138
c. Finantza-aktiboak (8. kapitulua)	37.323	41.750	-4.427	42.980	24.939	18.041
d. Finantza-pasiboak (9. kapitulua)	0	0	0	2.327	0	2.326
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	37.323	41.750	-4.427	45.306	24.939	20.368
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (1+2)	13.017.611	11.074.454	1.943.157	12.839.973	10.969.468	1.870.506
Doikuntzak						
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			86.695			168.272
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak			--			--
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			--			--
II. Doikuntzak guztira (3+4+5)			86.695			168.272
Aurrekontu-emaitza doituia (I+II)			2.029.852			2.038.778

3. 2016ko DIRUZAINZTA-GERAKINA

Osagaiak	2016	2015
1. Funts likidoak	2.212.878	2.251.048
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.101.820	2.164.353
(+) ekitaldiko aurrekontutik	91.201	120.315
(+) aurrekontukoak ez diren eragiketenak	2.010.619	2.044.038
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1-3)	111.057	86.695
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzen zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II-III)	111.057	86.695

4. EGOERA-BALANTZEA 2016ko ABENDUAREN 31n

	2016	2015
AKTIBOA, GUZTIRA	19.490.476	20.123.058
A) Aktibo ez-korrontea	17.256.530	17.847.297
I. Ibilgetu ukiezin garbia	208.632	204.026
3. Aplikazio informatikoak	208.509	203.316
Aplikazio informatikoak	208.509	203.316
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	123	710
Bestelako ibilgetu ez-materiala	123	710
II. Ibilgetu material garbia	17.016.389	17.619.836
2. Eraikinak	14.887.698	15.440.120
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	14.887.698	15.440.120
5. Bestelako ibilgetu materiala	2.128.691	2.179.716
Makineria eta tresnak	284.895	322.275
Garraio-osagaiak	0	0
Altzariak eta tresnak	51.692	66.993
Informazio-prozesuetako ekipoak	145.768	187.860
Bestelako ibilgetu materiala	1.646.336	1.602.589
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	31.508	23.436
4. Bestelako finantza-inbertsioak	31.508	23.436
Epe luzeko maileguak	31.508	23.436
B) Aktibo arrunta	2.233.946	2.275.761
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0
3. Administrazio publikoak	0	0
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	0	0
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	21.068	24.713
4. Bestelako finantza-inbertsioak	21.068	24.713
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	21.068	24.713
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.212.878	2.251.047
1. Kutxa	2.779	2.843
2. Bankuak eta kreditu-erakundeak	2.210.099	2.248.204
ORDENA-KONTUAK	3.661	3.661
Abalak eta bermeak	3.661	3.661

	2016	2015
PASIBOA, GUZTIRA	19.490.476	20.123.058
A) Ondare garbia	17.385.945	17.955.995
I. Ekarritako ondarea	16.955.115	17.600.947
Ondarea	10.250.830	10.896.662
Lagapen gisa jasotako ondarea	0	0
Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.704.285
II. Sortutako ondarea	430.830	355.048
2. Ekitaldiko emaitzak	111.057	86.695
Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	111.057	86.695
IV. Emaitzei aplikatzekoak zaizkien bestelako ondare-gehikuntzak	319.772	268.353
Diru-laguntzak	319.772	268.353
B) Pasibo ez-korrontea	-	-
C) Pasibo korrontea	2.104.531	2.167.063
I. Epe laburreko hornikuntzak. Epe laburreko zorrak.	0	0
II. Epe laburreko zorrak	2.711	2.711
4. Bestelako zorrak	2.711	2.711
Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	2.711	2.711
IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.101.820	2.164.353
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	91.201	120.315
Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	91.201	120.315
3. Administrazio publikoak	2.010.619	2.044.038
Ogasun Publikoa zordun, PFEZa dela eta	0	0
Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla eta	0	0
Ogasun Publikoa hartzekodun, erabilera berezia dela eta	0	0
Ogasun Publikoa hartzekodun, kredituen itzulketa dela eta	1.918.794	1.952.083
Gizarte Segurantza hartzekodun	91.825	91.955
ORDENA-KONTUAK	3.661	3.661
Abalak eta bermeak	3.661	3.661

5. 2016ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2016	2015
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.802.666	12.417.028
a) Ekitaldikoak	12.802.666	12.417.028
a.2) Transferentziak	12.802.666	12.417.028
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	561.981	387.780
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	12.240.685	12.029.248
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak	14	34
Argitalpenen salmenta	14	34
6. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	68.374	48.304
Itzulketak	68.374	20.461
Bestelako diru-sarrerak	0	27.843
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira	12.871.054	12.465.365
8. Langile gastuak	6.613.406	6.401.827
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	5.627.954	5.488.675
Soldatak eta lansariak	2.684.199	2.749.447
Behin-behineko langileen soldatak	484.765	456.449
Funtzionarioen soldatak	2.253.609	2.207.282
Kontratupeko langileen soldatak	108.189	11.224
Parlamentarien dietak eta garraioak	12.866	5.808
Bestelako dietak eta garraioak	29.129	10.370
Langileen bestelako gizarte-gastuak	38.488	31.399
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	16.710	16.697
b) Gizarte-zamak	985.452	913.152
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantzak	985.452	913.152
9. Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.987.778	2.909.915
Transferentzia arruntak	2.987.778	2.909.915
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.287.481	1.297.290
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.147.469	1.134.361
c) Beste batzuk	140.011	162.929
12. Ibilgetuaren amortizazioa	742.880	771.865
B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira	11.631.544	11.380.896
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	1.239.509	1.084.468
13. Ibilgetuaren galerak		
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.239.509	1.084.468
15. Finantza-sarrerak	57.816	60.949
b.2) Bestelakoak	57.816	60.949
Interesak	57.816	60.949
III. Eragiketa finantzarioen emaitza (15+16+17+18+19+20)	57.816	60.949
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (ii+iii)	1.297.325	1.145.417

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

EBAZPENA, 2017ko abuztuaren 7koa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak emana. Honen bidez onesten da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, 2017ko abuztuaren 7an, honako ebazpen hau eman zuen:

Ikusirik Nafarroako Kontuen Ganberaren idazkari nagusiaren eta administratzailearen txostenak, auditore izateko lanpostu huts bat betetzeari buruzkoak, zeina aurreikusirik baitago Nafarroako Kontuen Ganberaren 2017rako plantilla organikoan, eta Zerbitzu Juridikoaren eta Kontuhartzailetza Zerbitzuaren aldeko txostenak baititu. Horri buruz egoki den txostena eman zaio erakundeko langileen batzordeari. Horrenbestez, lehendakaritza honek, bere ahalmenak eta bere eskumenak erabiliz,

EBATZI DU:

Lehenbizikoa.—Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia eranskineko oinarriekin bat etorriko da.

Bigarrena.—Deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 7an.

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga.

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Hona hemen deialdi honetako oinarriak:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdiaren xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzea, zeinak bere eginkizunak beteko baititu erakundeak Iruñeko Ansoleaga kaleko 10ean duen egoitzan.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta

lekualdatze lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuko lanpostuak betetzeko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2007ko otsailaren 26an onetsia.

Horien osagarri aplikatuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdiaren bidez izendatutako pertsonak Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, auditore lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Eginkizunak Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 19ko 19/1984 Foru Legearen 16. artikuluan eta Erakundearen antolaketa buruzko Erregelamenduaren 3. artikuluan zehazten dira (19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 2007ko martxoaren 2koa); besteak beste honako hauek: Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren kontuak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatzea, fiskalizazio zirriborroak eta behin-behineko txostenak prestatzea eta Ganberako lehendakariari igortzea, baita fiskalizazio eginkizunetan arituz lortzen dituen emaitzak ere, horien euskarriko agiriekin batera; auditoretzako arauak, irizpideak eta programak prestatzea, lanen homogeneousazio handiagoa lortzeko, baita Kontuen Ganberako lehendakariak agintzen ahal dion edozein ere, esleituta dituen eginkizunak betetzeari dagokionez.

1.4. Lanpostua A mailakoa da eta horri dagozkion ordainsariak izanen ditu, eta Nafarroako Comptos Ganberaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Deialdi honetako lanpostuari geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio, alegia, epaimahaiak lehiatzaileen zerrenda (erdietsitako puntuazioaren arabera) deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan

parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) A mailako funtzionarioa izatea.

b) Merkataritzako irakasle titulua izatea, Zuzenbidean lizentziatua izatea, Ekonomia eta Enpresa Zientzietako titulua izatea edo ofizialki baliokide gisa aitortutako beste titulazioren bat izatea.

c) Auditore lanpostu baterako izendatua izatea, lanpostu horren eginkizun nagusien artean deialdi honen 3. ataleko 1. oinarrian aipatzen direnak baldin badaude.

Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen baldintzak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleitu zaien.

2.2. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete behar direla ulertuko da. Era berean, izangaiak 2. oinarri honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak hautapen prozesuak iraun bitartean bete beharko dituzte. Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria. Eskaerak eta horiek aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide baten bidez, eredu ofizialarekin bat (deialdiaren II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Eskaerak interesdunen eskura egonen dira Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta erakundearen web-orrian ere (www.camaradecomptos.es), langileak hartzeko deialdien atalean.

3.2. Hurrengoak erantsi behar zaizkio eskaerari:

–Deialdiaren 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela frogatzen duten ziurtagiriak.

–Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jar-

raikiz sailkatuak, eta berauen frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta erakunde horren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Ansoleaga kalea, 10), egun eta ordu baliodunetan (goizeko 9:00etatik 14:00etara bitarte, astelehenetik ostiralera), hama-bost egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo, bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideak erabiliz.

Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Desgaitasun aitortua duten lehiatzaileek, probak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskaeran adieraztea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legean arabera desgaitasunen bat dutela frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Kontuen Ganberako iragarki oholean eta www.camaracomptos.es web-orrian argitaratuko da.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3 Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko da.

4.4. Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.5. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari

Ofizialean, Ganberako iragarki oholean eta www.camaracomptos.es web-orrian argitaratuko da. Izangai bakar bat ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

5. oinarria. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen merezimendu lehiaketaren epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua:

- Luis Ordoki Urdazi, Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusia.

- Ordezkoa: Ignacio Cabeza del Salvador, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea.

Epaimahaideak:

Miguel Ángel Aurrecoechea Gutiérrez, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea, langileen batzordearen ordezkari.

Ordezkoa: Karen Moreno Orduña, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea, langileen batzordearen ordezkari.

Gemma Angélica Sánchez Lerma, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria, epaimahaiko idazkari lanetan arituko dena.

Ordezkoa: José Luis Ezquerro Royo, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

5.2. Epaimahaia izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost eguneko epearen barruan eratu beharko da.

Epaimahaiaren eraketak eta jarduerak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiaren ebazpenak gehiengoz emanen dira eta epaimahaiburuak kalitatezko botoa erabiltzen ahalko du.

5.3. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

5.4. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diete eta organo dei egileari hala adierazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean abstentziorako aurreikusitak dauden arrazoiak suertatzen direnean. Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

6. Oinarria. Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta frogatutako merezimenduak deialdi honen I. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak, eta gehienez ere 45 puntu izanen dira.

6.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko ditu izangai bakoitzak, lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean.

Epaimahaiak izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.4. Merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa Nafarroako Kontuen Ganberako web-orrian, eta bost eguneko epea ezarriko du, merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alegatzen.

6.5. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta epaimahaiak haiek ebatzita, Ganberako iragarki oholean eta web-orrian argitaratuko da berriz ere, izangaiek merezimenduen kalifikazio fasean lortutako behin betiko puntuazioekin. Iragarki horretan, proba praktikoa egiteko tokia, eguna eta ordua emanen dira aditzera.

7. oinarria. Proba praktikoa, lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa eta Nafarroako Kontuen Ganberaren gaineko ezagutzari buruzkoa.

7.1. Bi ariketa egin beharko dira idatziz, gehienez ere lau ordutan; gehieneko puntuazioa 20 puntu izanen dira.

Lehenengo ariketa 5 puntu arte baloratuko da. Bost galderari erantzun beharko diete, Nafarroako Kontuen Ganberari eta horrek egiten duen lanari buruzkoak. Zehazki, galderak honako hauei buruzkoak izanen dira: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketaerako Erregelamendua eta Nafarroako Kontuen Ganberaren Ekonomia eta Finantzen Erregelamendua.

Bigarren ariketa 15 puntu arte baloratuko da. Deialdi honen 3. ataleko 1. oinarrian deskribatu-

tako lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa egin beharko da, Kontuen Ganberako auditoreek normalean burutu beharreko lanen gainean (plangintza, zuzendaritza, Nafarroako entitate publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio lanak eta txostenak egitea eta idaztea).

7.2. Plika itxien sistema erabiliko da ariketa hauek zuzentzeko. Horretarako, izangaiek, proba bukatutakoan, folioak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izen-deiturak bestearekin batera aurkeztuko den gutun-azal txikiago batean idatziko dituzte. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Proba bukatzean, bi gutun-azalean epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko plika zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, egilea zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna proba egiten ari den bitartean jakinaraziko zaie izangaiei.

Proba hori baztergarria izanen da. Bi ariketak baturik gutxienez ere 10 puntu behar dira gainditzeko. Lortutako puntuazioa erakundearen iragarki oholean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko da.

7.3. Proba egiteko orduan, minusbaliotasunen bat izanik halaxe eskatzen duten pertsonen denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

8. oinarria. Izangaiei zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

8.1. Epaimahaiak lehiatzaile guztien puntuazioa prestatu eta izangaiei zerrenda igorriko dio, lortutako puntuazioaren arabera, Kontuen Ganberako lehendakariari eta hark deialdiaren hasieran zen lanpostu kopurua handitzeko ebazpena eman lezake, hori egitea egokia balitz. Halaber, lehendakariak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

8.2. Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzintasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiatzaile zaharrenaren alde egingen da.

8.3. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak puntuaziorik altuena lortzen duen izangaiari esleituko dio lanpostua, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

9. oinarria. Lanpostuaren jabetza hartzea.

9.1. Izendatzen den izangaia izendapen erabakia jakinarazi ondoko hamar egun naturaleko epean hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

9.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiatzaileak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiekin beteko da lanpostua.

10. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

10.1. Izangaiek aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe berariaz eskatuz gero, betiere erreklamazio edo errekursorik jartzen ez bada. Agiriak berreskuratzeko eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da. Epe hori izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hasiko da.

10.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada agiriak hartzeko eskaerarik egin gabe, izangaiek agiriak berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

11. oinarria. Errekurtsiak.

Deialdiaren, bere oinarrien, izendatzeko erabakien eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsioa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko da, Nafarroako

Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Merezimenduak baloratzeko baremoa

a) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak. Gehenez ere 25 puntu.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa egiteko, puntu bat emanen da deialdia argitaratzen den egunean aitortutako antzinatasun urte bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehenez ere 25 puntukoa izanen da.

3. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu bada, aldi horietako zerbitzuak kontatzeari begira, egoera horietan sartzean zeukan lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa. Gehenez ere 15 puntu.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartzea: 0,10 puntu emanen dira kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehenez ere 7 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, ikastorduen zatikiak proportzionalki banatuko dira.

2. Irakastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena frogatzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko eskakizunak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko

Prestakuntzarako Itunen barrenean antolatutako sartzuko dira.

5. Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitatez kanpokoak, ez dira atal honetan baloratuko.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo saritutako zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatueta lanak argitaratzea, baita itzulpenak argitaratzea ere: 4 puntu, gehenez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, estatu edo nazioarteko maila duen.

3) Sektore publikoaren esparruan prestakuntza jardueretan irakasle gisa parte hartzea eta/edo haien antolatzea: 4 puntu gehenez ere; epaimahaiak baloratu beharrekoak, haien iraupenaren arabera.

Oharrak b) atal osorako:

1. Atal horretan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira.

2. Honako b) atal honi dagokion puntuazioa gehenez ere 15 puntu izanen da.

c) Beste merezimendu batzuk, epaimahaiak baloratu beharrekoak. Gehenez ere 5 puntu.

1.–Goi mailako titulazioak, deialdian eskatu ez direnak: gehenez ere puntu bat.

2.–Erdi mailako titulazioak, deialdian eskatu ez direnak: gehenez ere 0,50 puntu.

3.–Doktore gradua, deialdian eskatutako titulazioari buruz: gehenez ere puntu bat.

4.–Euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea:

Azpiatal honetan euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea honela baloratuko da: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, 0,20 puntu jasoko dira, A2 maila izanez gero 0,40 puntu, B1 izanez gero 0,60 puntu, B2 izanez gero 0,80 puntu, eta C1 edo baliokidea izanez gero puntu 1.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean hainbat tituluren eta egiaztagiriren artean ezarritako baliozkotzeak. 2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ebazpen hori, irailaren 27an.

Oharrak c) atalerako:

1. Hizkuntzen ezagutza hizkuntza eskola ofizial baten ziurtagiriaren bidez frogatu beharko da, edo erakunde publiko akreditatu batek emandako ziurtagiriaren bidez. Hartan lortutako titulazioa edo maila adieraziko da.

2. Titulu ofizialik ahalbidetu ez arren hizkuntza ikasmaila osoak edo unibertsitate ikasketak gainditu badira, epaimahaiak horiei puntuazioa ematea erabaki dezake, dagokion tituluaren proportzioan.

II. ERANSKINA

Eskaera eredia

.....
 jaunak/andreak (adina: NANA:
 herria: kalea:
 zenbakia: solairua:.....
 posta kodea: telefonoa: hel-
 bide elektronikoa:), adeita-
 sunez,

AZALTZEN DU:

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2017ko abuztuaren 7an emandako ebazpenaren berri izan du; horren bidez auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko dei egiten da, eta hartan parte hartu nahi du.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Adierazitakoaren ondorioz,

ESKATZEN DU:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen dituen merezimenduen egiaztagiriak gaineratu ditu.

Iruñean, 2017koaren(e)an.